



## Herrikideen omenaldi beroa jaso du Kaxianok

**LIZARTZA** ▶ 'Lizartzako itsua'-ri  
«merezitako omenaldia» eskaini  
diote lizartzarrek nahiz kanpokoek

**EKITALDIAK** ▶ Larunbatean jaialdi  
berezia egin zuten, eta igandean  
haren oroigarria aurkeztu ▶ 7



Otsolar dantza taldeko dantzariak parte hartu zuten jaialdian; antzerkia, txistulariak, bertsolariak, trikitilariak... ere izan ziren. HITZA

### TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶

**30. Gudari  
Eguna, baita  
eskualdean  
ere**

Militante abertzaleen  
omenez ekitaldiak  
deitu dituzte ▶ 2

### TOLOSALDEA ▶

**EHNA  
tramitatzeko  
aukera  
eskualdean**

Udalbiltzak eta Bai  
Euskal Herriari-k  
bultzatuta ▶ 2

### TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶

**Argazki  
lehiaketako  
finalistak,  
erabakita**

Gaurko alean ikus  
daitezke zortziak ▶ 4-5

### GAZTELU ▶

**Ehunka lagunek eman diote  
azken agurra Joxe Mari  
Aranalderi, bere sorterrian**

Haren aldeko hileta elizkizunak egin zituzten atzo;  
apaiz zenak urtetan egindako lana goraiatu zuten ▶ 6



Senitartekoak, hilkutxa eramaten, hileta elizkizuna amaituta. I. ETXEBESTE

GIZARTEA ▶

# Txiki eta Angel Otaegi gogoan, Gudari eguna 30. urtean burutuz

Eskualdeko 16 hildako militante abertzaleak gogora ekarriko dituzte gaur iluntzeko ekitaldietan

JAIONE ASTIBIA

Jon Paredes, Txiki, La Modelo kartzelatik atera eta Katalunian bertako Cerdanyola herriko hilerri inguruetan fusilatua zuten Guardia Zibileko boluntario talde batek, bere anaia eta abokatua present zirela, *Eusko Gudariak* kantatzen zuten bitartean; Angel Otaegi, Burgoseko kartzelako baratzako paretaren aurka fusilatua zuten Indar Armatu bereko beste boluntario talde batek, lekukorik gabe. 1.975eko irailaren 27ko goizeko zortzirak ziren, Francoren, Espainiako estatuburu zen general faszistaren aginduz, bi euskal herritar hauek ekijutatu zituztenean; ETAko bi kide hauekin batera, FRAPeko beste hiru kide ere hil zituzten: Ramon Garcia Sanz, Jose Luis Sanchez Bravo eta Humberto Baena.

Guztiei epaiketa *sumarisimo*-ak egin zizkieten, *epaimahai* militarretan; euren abokatu defendatzaileek heriotz-zigorren aurkako defentsa presartzeko lau ordu besterik ez zituzten izan. Euskal Herriko txoko guztietan ez ezik, Europako herrialde gehienetan erabaki haien aurkako jarrera agertu eta eskakizunak egin zituzten mota guztietako eragileek, baina Francoren erregimenak be-



Gudari Eguneako manifestazioa, iaz, Tolosan. I. TERRADILLOS

reari eutsi zion, ekijutazioak burutuz, «(jokabide eredu garri modura», zihoenez.

Euskal Herrian, orduz geroztik, egun honekin Gudari Eguna burutzen da. «Euskal Herriaren eskubideen eta askatasunaren alde bizia galdu duten eusko gudariak» gogoan hartu eta omentzeko.

Aurten 30 urte betetzen dira, egun hartatik. Urte hauetan guztietan Tolosaldean, nahiz Leitzaldean bakarrik, 16 militante abertzale hil dira, modu batera edo bestera; eta inongo zerrendetan agertzen ez dire-

nak ere badira batzuk, Leitzan 1981eko urriaren 15ean, ETAK bertako kuartelilloa tirokatzen zuten bitartean, «noraezeko tiro batez» hilik suertatu zen Gregorio Hernandezen leitzar langilearena, kasu.

Hauek guztiak gogoratzeko Ezker Abertzaleak hainbat ekitaldi deituta ditu eskualdean «Euskal Herriaren eskubideen eta askatasunaren alde egin izan duten borrokarren errekonozimendu gisa». Horrela, gaur iluntzean, Tolosaldeko eskualdeko manifestazioa egingen dute 20:00etan, Tolosako

## HILDAKO MILITANTE ABERTZALEAK ▶

**Joxe Etxeberria Sagastume (Amezketza).** Maneiatzen ari zen lehegailua lehertuta hil zen 1973. urteko azaroaren 28an.

**Joxe Benardo Bidaola Atxega (Lizartza).** Muga zeharkatzen ari zela abilotu zutela ikusi zuten berarekin zihoazenez, geroxeago tiro batzuk entzuz, 1976ko apirilaren 24an; senideek egun batzutura hilik bilatu zuten lehendik miatutako paraje batean.

**Sebastian Goikoetxea Mariezkurrena (Ibarra).** Errepideko polizia kontrol batean metrailatu zuten bere kotxea 1977ko martxoaren 8an.

**Jokin Saizar Gokoetxea (Irura).** Prestatzen ari zen lehegailua zartatuta hil zen, 1977ko uztailaren 26an.

**Joxe Milgel Etxeberria Alvarez (Lizartza).** 1980eko ekainaren 11n BVEk bahitu, erahil eta bere gorpua ezkatatu zuten, gaur egun oraindik agertzeke egonik.

**Joxe Arregi Eizagirre (Zizurkil).** 1981eko otsailaren 13an hil zen, bederatzik egun lehenago abilotu eta hurrengo egunetan eragin zizkieten torturengatik.

**Joxe Jauregi Altube (Ibarra).** Guardia zibilek tiroz hil zuten euren gandiak ihesi zihoala, 1981eko urriaren 21ean.

**Joxi Zabala Artano (Tolosa).** 1983ko ekainaren 16an desagertu zen Baionan. GALEk bere gain hartu zuen ekintza izan bazen ere, gerora jakindu zen Guardia Zibileko kideek bahitu, torturatu, erahil eta

kare bizian ehortzi zutela, Joxearekin batera.

**Joxean Lasa Arostegi (Tolosa).** Joxirekin batera desagertu zen Baionan eta patu bera izan zuen.

**Mikel Lopetegui Larrarte (Tolosa)** Herrera de La Manchako (Espainia) espetxean preso zeukatelarik, 1988ko martxoaren 2an urkatuta aurkitu zuten funtzionarioek, bere zeldan.

**Mikel Zalakain Odriozola (Villabona).** Martuteneko kartzelan hil zen 1987ko apirilaren 30ean, arretarik batera jaso gabe, bihotzeko gaixotasunak jota.

**Inaxi Zeberio Arruabarrena (Lizartza).** Ertzaintzak hil zuen tiroz 1998ko ekainaren 5ean Gernikako pisu batean.

**Esteban Esteban Nieto (Tolosa).** 1999ko apirilaren 7an zendu zen gaixaldi larri eta luzearen ondoren, eta kartzelatik baldintzarik gogorrenak jasanik, bere etxean.

**Joxelu Geresta Mujika (Zizurkil).** 1999ko martxoaren 19an hilik azaldu zen Errenteriako zuhaitzi batean, buruan tiro bat zuela eta «hil ondoren hagin batzuk aterata» zituela.

**Felix Sarriegi Mujika (Alegia).** 1987an ihes egin zuen Arantza Otamendi bere emaztearekin batera. 2001ean hil zen Baionan, gaixotasunez. **Arantza Otamendi (Elduain).** 1987an ihes egin zuen Felix Sarriegi bere senarrarekin batera. 2004ko maiatzaren 30ean hil zen Baionan gaixotasun baten eraginez.

Triangulotik aterata. Beste hainbeste egingen dute Leitzan ordu berean, *Borrokak irabazi,*

*independentzia eta sozialismoa* aurtengo leloa buru dutela.

hitza

# txokoa

▶ HITZAren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5\*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAren harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

## 'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

**Avalon**  
o s a g a i a k  
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

**honekin**  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 24 30

**kanikak**  
San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

**ILUMINAZIOA**

**SHANTI KIROAK**  
Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

**MUGAR**  
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 56 85

**LIZARRIBAR**  
OINETAKOAK  
Arostegieta kalean  
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

CARLOS PEÑA ▶ IGERILARIA

# «Beti eskertuko dut jendearen babesa; honi esker lortu dut erronka»

Guinness errekorra lortu du igerilari tolosarrak iragan asteburuan 24 orduz jarraian sorbaldaz igerian eman ostean; «hunkituta eta pozik» azaldu da



HITZA

NOELIA LATABURU

*Lortuko al du?* Asteburuan guztion ahotan egon den galderrari erantzuna ematerik badugu azkenean, egun luze baten ostean. Igandeko 12:00etan Usabal kiroldegiko igerilekuko txirrin hotsak iragarri zuen Carlos Peña tolosarrak Guinness errekorra lortu zuela, 24 orduz jarraian sorbaldaz igerian aritu ostean. Bertan sentitukoaren eta esperientzia be-

raren gainean jardun du igerilariak HITZAREKIN.

**Lehenik eta behin, zorionak. Nola sentitzen da Guinness errekorren liburuan sartu berri den pertsona?**

Erabat hunkituta nago. Egoerak zeharo gainditu ninduen. Ez nuen inolaz ere espero hainbesteko babesa jasotzea, bai antolaketan aritu direnen aldetik, nirekin igerian aritu zirenen aldetik, bai eta ikusle gisa gerturatu zirenen aldetik ere.

## LORPENA

«Bereziki gogoratuko dut erronka hau, etxean nire herritarrez inguratuta lortu dudalako»

## BABESA

«Ikusleei eta nirekin igeri egin zutenen jarrerari hamarrekoa ematen diot, ez nuen babes hau espero»

## ETORKIZUNA

«Garaipean honetaz disfrutatu nahi dut orain, errekeratzen naizenerako badituz proiektu»

zen. Zirraragarria izan zen jendea nire alboan izatea, une askotan bi eta hiru pertsona batera aritu ziren kale bakoitzean. Jendeak etengabe bultzatu ninduen aurrera egiteko. Ezingo dut inoiz ahaztu hori.

**Hala ere, une gogorak ere igaroko zenituen.**

Bai noski. Oso gogorra izan da, baina merezi izan du. Batik bat bi arazo izan nituen: lepoan giharretako arazoa sortu zitzaidan, eta gogorra izan zen minarekin igeri egitea. Baina ekipo-ko masajistek ondo zaindu ninduten. Bigarren arazoa digestio kontua izan zen. Geldiunetan, janari energetikoa eta glukosa hartzen nuen, eta horrek kalte handia egin zidan sabelean. Gaueko 11:00etatik 04:00etara botaka egin nuen hiruzpalau alditan. Elikadura aldatu behar izan zidaten.

**Baina egoerari ederki eutsi zenion.**

Bai, behin arazoak gaindituta ondo sentitzen nintzen. Gogorrena gaua izan zen, baina behin eguzkia ateratzen sentitu nuenean orduak azkar igaro ziren. 12:00etarako bi ordu gertatzen zirenean, eta bertaratuz jendea iriluzioa eta ikuskizuna eman nahian, erritmoa bizitu nuen, fisikoki oso ondo sentitzen nintzelako.

**24 ordu askorako ematen du. Inongo unetan ez al zenuen**

**pentatu ez zenuela zure marka lortuko?**

Nire helburua lortzeko gogoz aritu nintzen uneoro eta 24 ordu luzeetan ez nuen pentsatu nire saiakera uztea. Egia da une latzak igaro nituela baina jendearen gertutasunak arindu zituen hauek.

**Marka egin aurretik, psikologikoki oso gogorra izango zela aipatu zenuen.**

16 urte daramatzat igerian markak egiten, baina guztietan leku irekiak erabili ditut. Gogorrena leku itxian egitea izan da, beldur handia nion horri. Baina, beste behin ere, gerturatu zen jendeak lagundu zuen hau arintzen. Zure herritarrek zurekin sentitzea oso berezia da, eta horrek mentalki asko animatu ninduen.

**Bereziki izango duzu gogoan egun hau betirako.**

Inoiz egin dudan erronka hunkigarriena izan da honakoa. Izan ere, zailagoa izan ohi da zure lurraldean onarpena eta babesa jasotzea kanpoan baino. Nire kasuan behintzat ez dut horrelakorik sentitu. Donostiako badian burutu nuena ere polita izan zen niretzat, baina ezin dut asteburu honetan eginikoarekin alderatu. Bide batez, eskerrik beroenak luzatu nahi dizkiet proiektua aurrera ateratzen lagundu duten erakundeei, 750. Urteurrena fundazioari, igeriketara, judo eta gimnastika erritmokoko klubei eta ikusle guztiei.

**Eta orain, zeintzuk dira zure hurrengo eronkak?**

Oraingoz lorpen honekin disfrutatu eta gozatu nahi dut, fisikoki errekeratzen naizenerako, berriz, badituz pare bat proiektu buruan. Batetik, urteroko egiten dudana Sella ibaiaren jaitsiera, eta Donostiako igerilekuan beste marka saiakera.

## iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- behea  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 50 37  
Faxa: 943 65 09 44  
e-maila: enio@inmoenio.com  
www.inmoenio.com

**Altzo.** Ebe bifamiliari ederra salgai. Ikusteko modukoa. Bista ederrak.

**Bidania.** Eraikuntza nahiko berriko ebe bifamiliari salgai, oso egoera onean.

**Ibarra.** San Inazio auzoan. 3 logela, sukalde-egongela eta bainugela. Dena kanpoaldera, oso eguzkitsua. Estreinatze!

**Ibarra.** Plaza inguruan garajea salgai.

**Ikaztegieta.** Etxea atxikia salgai.

**Lorategi eguzkitsuarekin.**

**Larraul.** Eraikuntza berriko ebe bifamiliari. Zoragarria!

**Tolosa.** Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 155.060 eurotik.

**Tolosa.** Berazubi. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Bizitzentzako jartzeko moduan. 237.400 euro.

**Tolosa.** Montezkue. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.

**Tolosa.** Baratz eta xabolarekin. 155.060 euro.

**Tolosa.** Berazubi. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Guztiz berritua.

**Tolosa.** San Esteban Auza. 3 logela.

Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.

**Tolosa.** Amaro auzoan hainbat etxebizitza salgai igogailuarekin.

**Aukera paregabeak!**

**Tolosa.** Larramendi. 96 m2. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela.

**Trasteleku eta garajea.** Dena 330.560 euro.

**Tolosa.** Zezen Plazan. 87 m2-ko etxebizitza berritzeko igogailuarekin.

**Tolosa.** Erdialdean. 130 m2-ko etxebizitza salgai. 4 logela (bat bulego bezala egokitua). Estreinatze, guztiz berritua izan ondoren.

**Tolosa.** Foruen Etorbidean berritutako ebea. Ikusteko modukoa!

**Tolosa.** Geltokialdea. Eraikuntza berria. 2 logela, egongela, sukaldea,

bi bainugela, 2 terraza eta 2 lorategi.

**Behean: garajea, komuna eta bokoa.**

**Tolosa.** Trinkete. 3 logela eta bi

bainugela dituen etxebizitza salgai. Egongela ederra. Ezin hobeto!

**Tolosa.** Larramendi. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.

**Trasteleku ederra ganbaran.**

**Tolosa.** San Frantzisko ibilbidean 126m2-ko etxebizitza berritua, 4 logela, 2 bainugela. Kanpoaldera, altua. Berokuntzarekin. Garajea aukeran.

**Tolosa.** San Frantzisko ibilbidean. Pisu ederra. 4 logela, 2 bainugela.

**Kanpoaldera, altua, berokuntzarekin. Garajea aukeran.**

**Tolosa.** Erdialdean. Guztiz berritua dagoen etxebizitza. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela

igogailuarekin eta berokuntzarekin. 321.540 euro.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

**Tolosa.** Laskurain kalean etxebizitza

salgai. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Guztiz berritua.

**Tolosa.** Gernikako arbola. 140 m2-ko ebe paregabea salgai terraza eta igogailuarekin.

**Tolosa.** Araba Etorbidea. Garajea alokairuan.

**Txarama inguruan.** 100 m2-ko etxebizitza terrazarekin salgai.

**Villabona.** Kale Berria. Duela 10 urteko eraikuntza apartamentua berokuntza eta igogailuarekin. Oso polita! 206.000 euro.

**Villabona.** Etxeondo. Pisu 3 logela eta 2 bainugelarekin. Garajearekin.

**Villabona.** Kale berria 30 m2-ko garajea ibia salmantan.

**Villabona.** Eraikuntza berria 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Garajea aukeran.

II. HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶

# Finalera iritsi direnak

HITZAren udako argazki lehiaketako zortzi finalistak aukeratu ditu epaimahaiak; orain irakurleek hautatu behar dute onena; puntu gehien lortzen dituzten hiru argazkiak sarituko dira

### ERREDAKZIOA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA antolatutako II. Argazki Lehiaketa arrakastatsua azken txangara iritsi da. Udaleko oporraldia gai hartuta, irakurle askok aurkeztu dituzte lehiaketara irudiak. Bi orrialdeotan dau-

de zortzi aukeratuak. Bada hemendik aurrera zuek izango zarete zortzi argazkien artean onena hautatzeko epaimahaiak. HITZAk zenbaki banarekin izendatu ditu zortzi irudiak, eta zenbaki horiek erreferentziaz hartuta, gustukoena aukeratu beharko duzue orain.

Bakoitzak gustukoaren duen argazki bakarra aukeratu beharko du, eta bere erabakia HITZARI jakinarazi. Bi bide dituzte horretarako: posta elektronikoa eta telefonoa. Hartu parte, botoa ematen duten guztien artean opari bat zozketatuko baitu HITZAk.

### XEHETASUNAK ▶

#### IRABAZLEEN HAUTAKETA

**Botoa nola eman.** Telefonoz edo posta elektronikoz:  
▶ Lehiaketarako dela zehaztu, zuen ustez argazki onena denari dagokion zenbakia argi azalduz, eta harremanetan jartzeko datuak (izena, telefonoa, NAN...) jarri, tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbidera bidali.  
▶ HITZako egutzara deituta: 943 65 56 95.

**Araua.** Harpidedun edo irakurle bakoitzak behin baino ezin izango du botoa eman.

#### IRABAZLEENTZAKO SARIAK

- ▶ **1. saria.** Bi laguntzako bakari eder bat Aikizako Ostatuan.
- ▶ **2. saria.** Leitzako Arakindegia jaletean afari eder bat bi laguntzako.
- ▶ **3. saria.** Tolosako Richard argazki-dendako 8x21 prisma-itxoak.




1

Juanjo Esaola (Añoeta). Zarauzko hondartzatik Getariari ateratako argazkia.



2

Aintzane Artola (Tolosa). Umeboa, Abaltzoketan, ebe inguruñko behiak zaintzen.



4

Fernando Rojo (Tolosa). Mozambikén ateratako argazkia. «Eguzkia bera da mundu osoan, baina, era berean, bi eguzki berdin ez daude».



3

Ander Otezabal. Vajar de la Fronterako kale bat (Cadiz, Espainia).



5

Xtarna Zabala (Tolosa). Lago de Marboré, Iaino artean. Pirinioetako mendiz eguzkenetabakoa den Monte Perdidoak ateratako argazkia.



6

Iban Zendoia (Azpeitia). Norvegiar batera eta bestera ibili da uda honetan. Argazki honetan Hardangerfjorden ageri da.



7

Henar Ariztimuño (Tolosa). Portugalgo aldean pasa zituaten oporrak Henar Ariztimuñok eta bere lagunek. Argazkian Praia da Rocha-ko kala bat ikusi daiteke, eguzkia ekuluztzen ari dela.



8

Urtzi Armandariz eta Miren Arregi (Tolosa). Senegaleko kostan ateratako argazkia da, bi lagunek uda honetan eginko bidaiatu.

### Irakurki laburrak ▶

<b>LANA</b> Sukaldaria eta kamarera. Asteburuetarako eta oporren	ordokapena egiteko sukaldaria eta kamarera behar dira. Deitu 943 69 19 33 telefono zenbakira.	<b>Neska.</b> Neska eskualdean bat behar da taberna batean lau orduz lana egiteko. Deitu 675 701 178ra.
---	---	---

GIZARTEA ▶

## EHNA tramitatzeko aukera zabaldu dute

Asteburu honetan hasi eta asteburuak 11 arte eskualdeko herri gehienetan egin ahalko da



Iragan larunbatean eginko prentsaurrekoa. HITZA

### ERREDAKZIOA

Udalbiltzak eta Bai Euskaral Herriari herri ekimenak, Euskaral Herriko Nortasun Agiria (EHNA) hedatzeko helburuz. Tolosaldeko herrietan udal-keneko hilabeteetan bainat ekimen burutuko dituzte. Hauak aurkezteko prentsaurrekoa egin zuten biek ere, iragan larunbatean, Iruran.

EHNA tramitatu nahi duten herriek aukera izango dute asteburu honetan hasi eta asteburuaren 11 bitarte eskualdeko herrietan baten. Urriaren batean, esaterako, 17:00etatik 19:00etara Iruran eta 18:00etatik 20:00etara Aikizan egin ahal izango dute. Urriaren 2an, berriz, Aikizan berriz ere, 11:00etatik 13:00etara izango dira. Gai-nontzako herrietako eguzkiak aurrerago azalduko dituzte, egunak guturatzen duten heinean. Tramitazioa aurrera eramateko beharrezkoak izango dira kolorezko hiru argazki, errolda agiria —norberaren herriko udal-txean eskatzen dena— eta 15 euro aurkeztea.

Lehendabizi Udalbiltzak ordezkariek hartu zuten hitza eta ekimena azaldu zuten. «Egundaino eskualdeko udal-terre gehienetan tramitatu izan da EHNA, eta asko izan dira euskal naziotasun agiria

eskuratu duten herritarrek. 1928 zehazki. Hala eta guztiz ere, bultzada indarberritua eman nahi diogu EHNAri aurkeztu asmo dugun ekimenarekin, azaldu zuten, besteak beste, Udalbiltzakoek.

Ondoren, herri ekimenaren ordezkariek jardun zuten EHNAren gainean. Hain esanetan, egure ustez oso garrantzitsua da EHNA Tolosaldeko herrietarrok eskura izatea, puskana-puskana, EHNA erabiliz euskal herritar gisa bizi ahal izan gaitzen. Hau honela izan da, bai Euskaral Herriari Tolosaldeko elkartetara, EHNAren onarpenera eta babesa lortu asmoz. Amaitzen, eskualdeko herritarrok EHNA tramitatzera animatu zituzten.

### ▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Inketa.** Hau da aste honetan proposatu dugun galdera. Pasa den egunotan Mugikortasun Asteak egin dira eskualdean, eta hilaren 22an Auzorik Gabeko Eguna izan zen. Zu nola joaten zara lanera edo ikastera? Hauak dira zuek eman dituzten botoak gure webgunean:



Emaitzak. HITZA

### SUHILTZAILEAK BASOZAINAK

Hurrengo deialdiak, Informa saltza: 943 42 87 74



GAZTELU ▶ GIZARTEA

# Ehunka lagunek eman diote azken agurra Joxe Mari Aranalderi

Bere sorterrian egin zituzten bere aldeko hileta elizkizunak atzo; apaiz zenak urtetan egindako lana goraipatu zuten



Ehunka lagunek eman zioten atzo azken agurra Joxe Mari Aranalde apaiz zenari Gaztelun. I. ETXEBESTE

## IRATXE ETXEBESTE

Gaztelun, bere sorterrian eman zioten atzo ehunka lagunek azken agurra Joxe Mari Aranalderi. Gaixotasun luze baten ostean, larunbat eguerdian zendu zen, 72 urterekin, Ibarran zuten bizilekuan. Joan den ekainean larritu zitzaizkion osasun arazoak apaiz zenari. Ebakuntza egin zioten joan den astean, baina ezin izan zion bizitzari denbora gehiagoz heldu. Atsekabez hartu zuten bere heriotza eskualdeko hainbat eta hainbat lagunek, eta atsekabe berarekin agurtu nahi izan zuten Aranalde bere aldeko hileta elizkizunetan bildutakoek. Politikariak, euskalgintzako hainbat alorretako ordezkariak, sukaldariak, aktoreak... aurrerapegi ezagun anitz ziren ha-

ra joandakoen artean. Guztiek ere Aranaldek urtetan egindako lana goraipatu zuten. Elizkizunaren ostean Gazteluko hilerrian ehortzi zuten gorpua.

Euskaltzale, fededun, bertsozale, irakasle eta idazle fina zen Joxe Mari Aranalde. Ezagutzen zutenek lagun bikaina ere bazela diote. Apaiztu zenetik oso gertutik jarraitu zituen herriararen arazoak, eta konpromiso handiko gizona zen gizarte arazoaren aurrean. *Tolosaldean Egunero* egunkariko kolaboratzaile izateagatik, gertutik ezagutu ahal izan zuten kazeta honetako langileek; gogoko zuen oso hari buruzko elkarriketak hedabideetan ikustea. **TOLOSALDEKO HITZAK** 2003ko uztailaren 6an argitaratu zuen bere bizitzari buruzkoa. Lehen eta azkena. Bertsolariatzaz

eta fedez jardun zuen luze zabal. Leaburun eta Belauntzan apaiz lanetan ari, eta herri txiki-ien gururuz galde egin zion kazetariak. Halaxe erantzun zuen, *Orixe*-k behinola esandakoa gogora ekarrita: «Herri txikiak infernu handi direla esan zuen hark egia esan zuela dirudi». Izan ere, gauza bera esaten zuen Aranaldek beti: herri txikiak idealizazioa ez dagoen gauza egitea dela. «Herri handietan bezala, kultur eskasia da herri txikietan dagoen gaitzik handienetakoa».

Garrantzia handia ematen zion ikasteari eta irakurtzeari. Irakasle zeneko garaiez oroitzen zen sarritan, eta ikasleari hitz eginaraztea baino elementu pedagogikoagorik ez dagoela uste zuen. Berak ere bazituen maisuak: ebanjelioa eta

IRITZIA ▶ JOXE AGUSTIN ARRIETA (IDAZLE ETA IRAKASLEA)

## Aranalde, gizon fina

Joxe Mari Aranalde Olondo hil zaigu. Tolosaldeko idazlerik oparoenetakoa, itzultzaile bikaina, bertsozaintzan maisua, kontalari atsegina, sermoilari sakona, hitz-jario handikoa, lagunaren laguna eta apaiz zerbitzaria izan dugu.

Aranalde bertsolariatzako historiaren zati bat dugu, baita esango nuke, euskal literaturako historiaren zati bat ere. Egunkariak bere lanen berri eman digute, hala ere, nahiz eta mugimendu literario bateko gizona ez genuen, literatur gizona zen. Lan bikainak ditu bertsozaintzan, baita eliz liturgiaren alorrean ere, erlijio literaturan, itzulpengintzan...

Bere idazlanetan euskal sena, Euskal Herriaren izaera eta bihotza, itxura eta arima agertzen ditu, eta zer esanik ez, batez ere *Xalbador* eta *Orixe*, bere bi maisuena. Benetan bidegile izan dugu Aranalde. Euskal Herri maitalea, aberri batenganako gogo gozoa eta bake bizia zuena, baina, batez ere, gizaki zalea, lagunaren laguna, entzuten zekiena eta Jainko maitalea.

Euskal letretan lagun eta adiskide asko zituen gizona zen Don Manuel Lekuona maisuaren eskutik zintzo aurrera egin zuena. Kultur bizitzan zerikusia izan duen pertsona izan duen harremana es-tua eta etengabea izan da —Juan Mari Lekuona, Iratze-der, Gandiaga, Zarate, J.A. Muxika...— eta ondoren Gero ar-

gitaletxean eta irakaskuntzan —Julen Lizundia, Jesus Mari Mujika, Atxaga, Andu Letertxundi, Xabier Lete...—.

Joxe Mari Aranalde, urteak gorabehera, ez da joanari begira egon den horietakoa. Aurrera begira beti, jakin zekielako garaikak irteera berriak eta bestelakoak galdatzen zizuelako. Aranalderentzat ez da bizia jolas bat izan, ezta ere ez du inoiz azaletik eta arinki hartu historia. Beti bere jatorriari eta kristau senari zintzo eta leial azaldu izan da. Euskal gizarteak sekulakoak ezagutu ditu Aranalde apaiztu zenetik (1958). Elizarekiko atxikimendua arras bestelakotuta dago gure artean, euskal gizartearen balioak eta ikuskerak errotik aldatu dira. Duela mende erdi pentsaezinak ziren hainbat alorretan egundoko aurrerakadak izan ditu euskarak. Gazi gozoek, hala ere, hortxe diraute, denon begi-bistan eta gure lanerako akuilugai.

Joxe Mariren ekarria laburbiltzen dutenak, gaingiroki bederen, hauetxek lirarteke: elizaren bizitza, euskara, bertsolariatza, irakaskuntza eta euskal gizartearen ardura. Euskal Herriko historiaren zati bizi bat izan dugu Aranalde, batez ere euskal kulturari begira. Liburu desberdinak argitaratu ditu, eta hainbat artikulu egunkari eta aldizkarietan. Bihotzez eta bihotza erakusten zuen horietakoa gengen Aranalde. Goian bego.

gazteak. «Datozen generazio berrieekin sintonian ez dagoena hilda dago», esaten zuen: «Belaunaldi berriek balore berriak, aurrekoak baino hobekak ekartzen dituzte beti; egindako gizarte berri bat hitzez ez, baina jokabideez adierazten, satlatzen dute gazteek».

Apaizgintzan jarduteaz harro, lan horrek ebanjeliora hurbiltzera, eta, batez ere, bere erlijioaren muina deskubritzera eraman zuela irizten zion. «Bizitzan gehien eskertzen dudana da hori. Berriz jaiota ere, hori bera izan nahiko nuke». Hala bedi.

## hilberriak ▶



### Joxe Mari Aranalde

Ibarraren alde eta herriko kulturaren eta euskararen alde egindako lanarengatik, gure eskerrak



Ibarrako udalbatza

IBARRA, 2005eko irailaren 27a

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

# Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

## ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

LIZARTZA ▶ KULTURA



Lizartzako itsua-ren bizitzako pasarteak irudikatuz egin zuten antzerkia herritarrek. HITZA



2 urtetik 70 urte bitartekoez hartu zuten parte omenaldian. HITZA



Kaxa-ren irudiak izan ziren ikusgai. HITZA



350 lagun inguru elkartu ziren herri bazkarian. HITZA



Oroigarriaren aurkezpena egin zuten unea. HITZA

# Bat egin du herriak Kaxiano omentzeko

Herritar nahiz kanpoko jende askok omendu du Kaxiano; haren alargunak esker hitzak izan zituen herritarrentzat

INÍGO TERRADILLOS

Pasa den astean Lizartzak Kaxianori omenaldia eskaini zion. «Euskal Herri mailan artista handia izateaz gain, Lizartzaren ezagutza zabaltzen gehien lagundu dutenen artean egonik, ondo merezia zuela-

ko». Omenaldiari zegozkion ekitaldi nagusiak asteburuan egin zituzten, eta oso harrera ona izan zuten, jende askok gogoratu nahi izan baitzuen *Lizartzako itsua*.

Larunbatean egindako jaialdia berezia izan zen oso. 3 ordu inguru iraun zuen, eta 80 herri-

tar inguru artista bihurturik ikusteko aukera polita izan zuten pilotalekura bildu zirenek. Antzerkia Kaxianoren bizitzako pasarteak irudikatuz, dantza saioak, txistulariak, trikitalariak, bertsolariak... eta oneoro omenduaren irudiekin atzealdean. Aipatu jaialdi bere-

zi horretan bere taldea izandako Axerriak-ek ere parte hartu zuela.

Ingandean ere goizean goizetik hasita makina bat ekitaldi izan ziren Kaxa-ren omenez. Goiz deiaren ondoren meza izan zen; Alegiako Txintxarri abesbatzak hartu zuen parte, eta Etxeberria, Joxe Lizaso, Garmendia, Agirre eta Lazkano bertsolarien saioak ere izan ziren entzungai.

Mezaren ostean oroigarriaren aurkezpena egin zuten. Jaxone Irigoien Aiarak eginikoa lau harriz osaturiko trikuharri modukoa da; horietako batek erdian burnizko xaflen bidez eginiko akordeoiaren hauspoa du, bestean bere irudia eta jaiotza eta heriotza datekin, eta

bestean bere abesti arrakastatsu baten letrak: *Ez egin negar, etorriko naiz, egunen baten, pozez kantari; Gora Euskal Herri, gora Euskal Herri, gora Euskal Herriari*. Oroigarriaren aurkezpenean hitz egin zuen bere alargunak eta esker hitzak izan zituen Lizartzako herritarrentzat.

Pilotalekuan egin zuten bazkarian 350 lagun inguru bildu ziren, eta amaitzean jaialdia izan zuten; kasu honetan herritarrek ezekiz inguruko herritarren parte-hartzea irekia zegoen, eta jende askok hartu zuen parte, bere anaia tartean.

Herri guztiaren laguntzarekin egindako omenaldia izan da, eta haren bizitzaz gehiago jakiteko aukera izan da.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13  
**VILLABONA**  
Tel.: 943 69 68 56  
mug.: 616 93 17 88



**Andoain.** Eraberrituriko 3 logelako etxebizitza salgai. Sukalde handia. Oso eguzkitsua. Etxesagasti 943 69 68 56.

**Albiztur.** Baserrria salgai. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Larraul.** Azken etxe atxikia salgai. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Tolosa.** Gazteentzako egokia. Logela bat eta terraza dituen

etxebizitza. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Tolosaldea.** Aukera ezin hobea. 100 m2-ko etxebizitza ederra salgai. 34 m2-ko garajearekin. Berria bezala. Etxesagasti. 943 69 68 56

**Villabona.** Berrikuntza. Erdialdean. Eraiki berria. 2 logela. Ezin egokiagoa. Oso eguzkitsua. Oztoporik gabekoa. Trastelekuarekin. Garajea

aukeran. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Villabona.** Aukera paregabea. Erdialdean kokaturiko 2 logelako etxebizitza salgai. Berrikuntza behar du. Etxe ona. 32.000.000 pezeta negoziagarri. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Villabona.** Eraiki berria. 113 m2-ko etxebizitza ederra trastelekuarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Zizurkil.** Eraikuntza berria. 113 m2-ko etxebizitza paregabea. Trastelekuarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Eskaera handia** dela eta, etxebizitzak, bakarkako etbeak, baserriak eta nekazal eta hirigintzarako lursailak behar dira, alokairuan edo salmentan Gipuzkoan. Itxaron zerrenda [dugu](#).

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko irailaren 27a, asteartea ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA



beroena **22** hotzena **16**

BIHARKO EGURALDIA

goizez arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

**943 30 43 46**

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Amezketak.** Musika Eskolako matrikulazio epea zabalik da. Pianoa, panderoa, trikitixa, musika, tailerra, saxofoia eta gitarra dira aukeran. Izena eman nahi duenak bihar du azken eguna, Musika Batzordeko Agurtzaneri deituta (690 34 90 09).

**Anoeta.** Sexualitate adineko pertsonengan hitzaldia, Ana Atienzaren eskutik. Bihar, 18:30ean, Biltokian. Kubak antolatuta. Ondoren, merienda baxoa.

**JAIAK**

**Irura.** 17:00etan, jubilatuen jokoak plazan eta Zaharren Biltokian. Biharko zikirojaterako txartelak erosteko, gaur da azken eguna; estankotan eta trinketean daude salgai. Larunbateko ezkonduen bazkarirako izen-ematea, berriz, Aizpurua jatekian eta liburutegian egin behar da, etzi baino lehen. Haurtzaindegi zerbitzua (2-10 urte bitarteko umeak) eskatu nahi duenarentzat ere osteguna da izena emateko azken eguna.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**

Tolosa. Ebebeste, J. M. Gernikako arbolaren lorategiak, 3. 943 65 10 40.  
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.

**IRRATIA**

**Txolarre (107,5 FM)**

11:00-14:00. Tolosaldeko Ahotsa.  
13:10. Izkutuko koloreak irrati nobela.  
13:15. Lehiaketa eta disko eskainiak.  
19:00-21:00. Tolosaldeko Ahotsa.  
22:00-23:00. Street Noise.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Jubilatuak omendurik

**LEABURU-TXARAMA ▶ 50 bat lagunek hartu zuten parte Jubilatut Egunean; Joxe Mari Aranalde hil berriari omenaldi xumea eskaini nahi izan zioten**



Leaburu-Txaramako Jubilatut Egunean parte hartu zuten lagunak, elkarrekin. HITZA

**ERREDAKZIOA**

Urtero moduan, Jubilatut Eguna ospatu zuten egundean, Leabururen, Leaburu-Txaramako 50 lagun inguruk.

Bazkarian opariak banatu zituzten. Herriko zaharrenak, hau da, 94 urte dituen Eskolastika Ayerzak, jaso zuten saririk bereziena. Omenaldi honetan egotekoa zen Joxe Mari Aranalde zendu berria izan zuten bereziki gogoan herriko jubilatutuek. «Gure lagunari besarkada handi bat bidali nahi diogu. Adiorik ez, gero arte baizik», adierazi zuten, hunkiturik.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
Joseba Sagastibelza Juantorena (Leitza). Gaur 27 urte beteko ditu. Bere gurasoen eta arreba Lierniren partetik.

**ZILARREZKO EZTEIAK**  
Fabian eta Mariaje (Añoeta).  
Ondo pasa eguna Alazne, Maialen eta familia guztiaren partetik.

# HITZA,

## zorian agurren tarteak

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

**HITZAren egoizetara:**  
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**  
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!



**Irailak, 30 ostirala, botua emateko azken eguna**

**argazki hitza lehiaketa**

**BOTUA EMATEKO**  
Posta elektronikoz: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
Telefonoz: 943 65 56 95  
Botuaz gain, datu pertsonalak behar ditugu.

**Irabazleak, asteburuan argitaratuko dira Argazkiak www.tolosaldeko-hitza.info webgunean ikus ditzakezu**

1. SARIA: Bazkari eder bat bi lagunentzako Alkizako Ostatuan.
2. SARIA: Leitza Arakindegia jatekian afari eder bat bi lagunentzako.
3. SARIA: Tolosako Richard argazki-dendako 8x21 prismaoak.